

MENENDEZ Y PELAYO'REN BARRIAK

Idazle batzuk baztertuta dagoz, onak izan arren, idazketari ez dagokiozan zio batzukaitik, esaterako Jose Maria Peman errege-zalea zalako edo Menendez Pelayo eskoitarra zalako.

Baiña euskaldunok zio asko daukaguz Menendez Pelayo onartzeko eta orretarako lagunduko dau gaurko idaz-lantxu onek.

Esan dogu “Perutxo’reen abestia” Menendez Pelayo’k aurkitu ebala Irugarren Zelestina liburu aspergariaren barruan eta berak euskerarik ez ekialako, euskeraz dagoala antza artu eutsola. 1911n.urteko urtillaren 19n.egunean il zan Martzeliño Menendez y Pelayo. Ori dala-ta Urkixo’tar Julio’k (RIEV 6,265) auxe diño: Ziur dakigu menendez y Pelayo’k gogoz jarraitzen ebala RIEV’en bidea. 1911n,urtean eskutitz au idatzi eutson Urkixo’tar Julio’ri (euskeratu egiten dogu):

“Jaun maitagarria:

Omen aundi lez artu dot zuk egin daustazun eskintza “Irugarren Zelestina eta lelo’reen abestia” azterketa

ederrean. Ez neban uste nik zori utsez egin neban olerki zarkitu onek, olako filoloji-azterketa jakintsuak egiteko aukerea eskeiñiko ebanik, eta agiri ori ain garrantzizkoa izango zanik, kantabriarren guzurrezko abestia bere lekuan jarteko aukerea eskeiñiko ebanik.

Nik beti uste izan dot egi aundia dala au: ez dagoala liburu ain txarrik zeozer ona ez daukanik, eta, egia esan, gitxi izango da Irugarren Zelestina au dan bestean iñozoak diranak.

Aukera au artzen dot zuri eskerrak emoteko, bere sasoian artzen dodan RIEV emoitze ederra emoten daustazulako eta zorionak emoten dautzudaz, edestia maite daben guztiak egingo daben antzera, argitalpen au sendoa ta jakinbidekoa dalako eta bear-izan aundia eukan ikasketa-arlo bateri zuzenbidea emon dautsolako.

Zure adiskide:

M. Menendez y Pelayo’k”

OLAZAR’tar MARTIN’ek

EUSKALERRIA ERDIAROAN

Gauza gitxi dakigu gure erdiaroko edestiari buruz: IX gizaldian agertzen dira leenengoz Bizkaia eta Araba izenak eta XI’ean Gipuzkoa.

Euskaldunak auzoetan alkartuta bizi ziran, ermita baten babespean eta euren arduraduna urtero aukeratzeko ebela. Ez dakigu noiz asi ziran goragoko maillako batzarrak, Gernika’koak-edo.

Auzoak 4’tik 10 etxerakoak ziran eta ibarretan alkartzen ziran. Araba’n kuadrillak ziran eta Bizkaia’n merinaldeak.

XIII gizalditik daukaguz baserriak eta euskaldunak onak ziran salerosketan eta itxas-lanetan. XI gizalditik XIII’ra atzeratuak gara baiña XIV gizaldian, guztiai esaten jaken bizkaitarrak, eta oso trebeak agertzen dira Europa’ko kai guztietan. Ori izan zeitekean aldi orretan 88 uri sortzen dira, 21 Bizkaia’n.

OLAZAR’tar MARTIN’ek

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*



ALDIZKARI ONEK
BIZKAI’KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU